

PROBA ESPEZIFIKOA

2016ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2016ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2016

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

**Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri
Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du**

1. Azaldu ezazu zer den mitoa, eta adieraz itzazu haren ezaugarri nagusiak
2. Deskriba itzazu Sokratesen metodoaren parte nagusiak
3. Adieraz ezazu lau aukera hauetako zein den balioduna, eta azaldu ezazu haren esanahia:

Substantziak materiaz eta formaz osatuta daudela dioen teoria aristotelikoaren izena hau da: 1) Materialismoa. 2) Esoterismoa. 3) Hilemorfismoa. 4) Silogismoa.

4. Zerrendatu itzazu San Agustinek besarkatu zituen pentsamendu-korronteak, eta adieraz ezazu zer eragin izan zuten haren berezko filosofiaren lanketan.

5. Identifika ezazu zer ezaugarri dagozkion etika material izenekoei eta zein etika formal kantiarrari:

- a) Autonomoak dira.
- b) Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte.
- c) Edukia dute.
- d) Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte.
- e) Ez dute edukirik.
- f) Heteronomoak dira.

6. Aipa eta labur azaldu itzazu Industria Iraultzaren oinarriak eta ezaugarriak, eta zer eragin izan zuen Marxen filosofian.

7. Azaldu ezazu zer adierazten duten Nietzscheren filosofiako bi termino hauek:

- a) Nihilismoa
- b) Botere-nahia

8. Erantzun iezaiezu zientziaren eta etikaren ezaugarriei buruzko baieztapen hauei Wittgenstein-en arabera, egiazkoak diren ala ez erantzunez:

- a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu
- b) Zientziaren judizioak balio-judizioak dira
- c) Zientzia munduari dagokio
- d) Etika subjektuari dagokio



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2016ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2016

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

EBAZPEN ORIENTAGARRIA

1. "Mito"ak adierazpena, mezua, esan nahi du, kontatzen den zerbait. Ohiz kanpoko gertakarien elezaharretako kontakizunak dira, eskuarki munduaren, gizateriaren... jatorriari buruzkoak. Mitoetan, alegia edo fikzio alegoriko bidez, hala gizarte-arauei nola sinesteei, ohiturei... azalpena eta oinarria ematen dieten jatorrizko gertakariak birsortzen dira. Mitoak fantasia, edertasun literarioa eta sormena kondentsatzen ditu. Hauek dira haren ezaugarri nagusiak:

- Mitoa oinarririk gabeko pentsamendu bat da.
- Pentsamendu akritiko bat da.
- Pentsamendu antropomorfitiko bat da: gizakien izaera jainko-jainkoretan proiektatzen dute: haserrea edo hira zerbait gizatiarra da, eta Zeusi egozten zaio trumoiak eta tximistak azaltzeko.
- Naturaren indarrak jainkotu egiten dira: haizea azaltzeko, Eolo jainkoarengana jotzen da; Atlasek Lurrari eusten dio, tximista Zeusen hirak eragiten du, etab.

Hain zuzen ere, filosofiaren jaiotzak erantzun mitikoetatik erantzun logikoetara igarotzea dakar, mitotik "Logos"era igarotzea.

2. Hauek dira Sokratesen metodoaren parte nagusiak:

- Ironia: metodoaren parte negatiboa. Norberaren ezjakintasuna onartzea da. "Ezer ez dakidala besterik ez dakit".
- Maieutika. Metodo sokratikoaren parte positiboa. "Maieutika"k egia erditzearen edo munduratzearren artea esan nahi du. Sokratesek emagin intelektual gisa aurkeztu zuen bere burua, gainerakoei barnean zeramaten egia kanporatzen laguntzen ziena.
- Definizioa: gauzen hondora iristea. Aurkitu den egia hitzez formulatzea, "eidos"era edo esentziara iristea, hots, gauzak benetan diren horretara iristea.

3. Balio duen aukera 3) Hilemorfismoa da. Aristotelesen ustez, substantzia oro materiaz (hylé) eta formaz (morphé) osatutako konposatu bat da. Materia formaren euskarria edo oinarria da. Formak gauzen esentzia adierazten du. Hilemorfismoa Aristotelesen teoria da, Eskolastikak ere onartzen duena, zeinaren arabera gauza naturalak bi printzipio metafisikoz osatuta baitaude: materia eta forma. Materia potentzialitatearen edo posibilitatearen printzipioa da; forma, berriz, aktualitatearen eta perfekzioarena. Materia eta forma, gainera, lau kausa aristotelikoetariko bi dira; hain zuzen ere, intrintseko izenekoak dira, haien konposizioaren emaitza gauzen substantzia baita.

4. Etengabe egiaren bila, filosofia-korronte hauetako kide izan zen San Agustin:

- Manikeismoa: Dualismo hertsia bat aldeztu zuten: ongia eta gaizkia. Gaizkiaren arazoak biziki kezkatuta, korronte horretan aurkitu uste zuen gaizkiaren azalpena. Manikeismo hori beti ageri da, nola edo hala, San Agustinen pentsamenduan.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2016ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2016

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

- Akademiaren eszeptizismoa. Gero, kontra egin zien eszeptizismoaren tesiei, eta egiaren existentzia baieztatu zuen esaldi ospetsu honekin: "Si fallor, sum": Huts egiten badut, banaiz.
- Plotinoren neoplatonismoa. Korronte horren eragina funtsezkoa izan zen gaizkiaren arazoari erantzun filosofiko bat emateko: iluntasuna argi falta besterik ez da; gaizkia ongi falta besterik ez da.
- Azkenik, kristautasunera aldatzea, Milango apezpiku San Ambrosioren sermoien eraginez, neurri batean.

5.

- a) Autonomoak dira. Etika formalaren ezaugarria.
- b) Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte. Etika materialaren ezaugarria.
- c) Edukia dute. Etika materialaren ezaugarria.
- d) Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte. Etika formalaren ezaugarria.
- e) Ez dute edukirik. Etika formalaren ezaugarria.
- f) Heteronomoak dira. Etika materialaren ezaugarria.

6. Iraultza deritza eslulangintzatik fabrika-ekoizpena igarotzeari. Besteak beste, faktore hauek zabaldu zizkioten ateak transformazio industrialari.

- Liberalismoa: estatuaren esku ez hartzeko politika batean oinarrituta, industrializazioari lagundu zion, ez baitzituen oztopatu burgesiaren ekimen partikularrak.
- Populazioaren hazkundea: hilkortasunaren jaitsieraren zuzeneko emaitza izan zen, eta fabrikek funtzionatzeko behar zuten eskulana eman zuen. Hazkunde horrek soberakina eragin zuen, eta, horren ondorioz, eskulana merkatu egin zen.
- Berrikuntza teknikoak (lurrun-makina, etab.) erabakigarriak izan ziren ekoizpenaren igoeran. Haien bidez, gehiago fabrikatu ahal izan zen denbora laburragoan eta gizon gutxiagorekin.
- Kapitalaren existentzia: oso beharrezkoa zen, inbertsio handi bat behar baitzen fabrika bat muntatzeko eta makineria erosteko.
- Faktore horiek guztiak batera gertatzeak Industria Iraultza eta kapitalismoa sendotzea ekarri zuen. Horrek guztiak, gizartean, gizarte-klaseen arteko desparekotasun handia eragin zuen, batez ere enpresaburu eta proletarioen artean. Desberdintasun horiek lagungarriak izan ziren langile-mugimendua sortzeko eta XIX. mendearen amaierako gizarte-iraultzetarako. Esan daiteke filosofia marxista baldintzatzaile horiek taxutu dutela.

7. a) Nihilismoa: latindar jatorriko hitza: "nihil" = ezer ez. Nihilismoa gure mendebal-kulturaren historiaren ondorioa da. Mendebaldeko espirituaren indarra, nekaturik, balio desegoki eta gezurrezkoek agorturik, nihilista bihurtzen da. Jainkoaren heriotzaren ondoren, Mendebaldeko zibilizazioak ordura arte zituen balioak galdu ditu: balio horiek faltsuak ziren, airez betetako globo bat bezala, zulatutakoan ezerezean gelditzen dena. Balio zahar horiek (esklaboen moralak) biziaren beraren ukazioa dira, "ezerezen borondate"tik baitatoz. Sokrates, zikuta edaten, eta Jesus Nazaretekoa, gurutzetik eskegita, biziaren ukazio bera dira.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2016ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2016

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

b) Botere-nahia: Berak du, hain zuzen ere, balio zahar horiek suntsitzeko ardura; balio horiek ez dira berez eroriko. Hori da baldintza botere-nahiak beste balio berri batzuk sor ditzan. Bera da supergizakiaren biziarentzako baietza. Botere-nahia sortzaileen boterea da, berdintasun-nahiari kontrajarria, botere-nahia menderatze-nahia baita, indarra, bizi-bultzada... Hots, botere-nahia biziaren sinonimoa da, bizi nahi izatearena: "Izaki bizi bat non ikusi, han aurkitu nuen botere-nahia"...

8. a) Etikak gertakariak deskribatzen ditu. Faltsua. Etikak ez du gertakaririk deskribatzen, balioak agintzen baizik. Gertakariak, objektiboa, zientziari dagozkio, ez etikari.

b) Zientziaren judizioak balio-judizioak dira. Faltsua. Zientziaren judizioak ez dira balio-judizioak; gertakari-judizioak dira. Eta haiei buruz esan daiteke egiazkoak ala faltsuak diren. Adibidea: beroak metalak dilatzen ditu. Gertakari bat deskribatzen duen judizio bat da, eta esan dezakegu egiazkoa dela. Baldin eta hau esaten badut: "eutanasia ona da" balio-judizio bat formulatzen ari naiz, eta, beraz, subjektiboa; hau da, subjektuari dagokio, zeina balioaren egoitza baita. Jakina, ezin da esan egiazkoa ala faltsua den, zeren eta gerta baitaiteke beste batzuk kontrakoaz konbentziturik egotea: "eutanasia txarra da".

Ondorioa: zientziaren judizioek gertakariak deskribatzen dituzte. Balio-judizioak beste esparru batzuetakoak dira: etika, estetika... hau da, mistikoaren esparruari dagozkio, zeinari buruz ezin baita hitz egin. Eta *Tractasusek* dioen bezala... "hitz egiterik ez dagoenari buruz, hobe da isiltzea".

c) Zientzia munduari dagokio. Egiazkoa. Proposizio enpiriko edo zientifikoak gertakariari apuntatzen dieten gezien modukoak dira. Wittgenstein-ek *Tractatusen* dioen bezala: "mundua gertakarien osotasuna da", eta proposizio zientifiko orok gertakari bat deskribatzen du. Erabateko paralelismoa dago haien artean: isomorfismoa. Haiek deskribatzen dituzten gertakariak eta proposizioek forma (morphé) bera (isos) dute.

d) Etika subjektuari dagokio. Egiazkoa. Adierazi berri den moduan, etika balioaren egoitza da, eta balioa subjektuari dagokio. Esparru etikoa errealitate bat da, eta ez da argudio bidez defendatzen, jokabide-adibideak emanaz baizik: "etika erakutsi egiten da, ez da frogatzen". Wittgenstein-ek bere "Etikari buruzko konferentzian" adierazi zuen bezala: Etika gizakiaren bizipen sakon bat da, inoiz irrigarri utzi behar ez duguna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2016ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2016

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

OINARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, azterketak zuzentzeko zenbait irizpide azalduko ditugu. Galdera bakoitzaren puntuazioa 2,5 da, hiru faktoreren arabera bananduta: orokortasuna (1,5), koherentzia (0,75), sendotasuna (0,25).

- Orokortasuna:** gaiaren egitura, orokortasun kontzeptuala eta historikoa –gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak– izango da zuzenketaren oinarritzko ildoak; beraz, zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan erantzuna, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:
 - Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da kontuan hartuko (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuazioa metatuz joango da; gutxituz, sekula ez.
 - Sakontzea honela ulertu behar da: galdetzen den filosofiaren eta/edo garaiaren ideia zentraletara pixkanaka hurbiltzea.
 - Zabaltzea, honela: ideia eta/edo inguruabar historiko gehiago aipatzea.
- Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikaz ageri dira ordenatuta lehentasunen baten arabera –epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...– Nolanahi ere, erantzuna ibilbide ulergarri baten bidez garatzen da.
- Sendotasuna:** testuan kontraesanik ez egotea –zerbait baieztatzea eta, gero, haren kontrakoa edo gaiarekin zerikusirik ez duena esatea; filosofiak ez nahastea, ez eta garai historikoak ere, eta abar–.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1.1
2	2.4
3	3.5
4	4.3
5	7.6
6	8.1
7	9.6
8	10.7